

Prentsa oharra

Nota de prensa

9.398 pertsonen izena eman dute Udal alokairuko BOEak esleitzeko baremazio kanpainan

Hirigintza zinegotzi Nekane Arzallusek kanpainaren datuak eman ditu. Kanpainari esker Donostiako babes publikoko etxebizitzaren eskatzaileen karakterizazioari buruzko datu zehatzagoak bildu dira

9.398 donostiarrek borondatea adierazi dute, alokairuko udal etxebizitza eta zuzkidura ostatuak baremazio sistemaren bidezko esleipenetan parte hartzeko. Hirigintza zinegotzi Nekane Arzallusek datuak eman ditu gaur goizean eta honakoa esan du: "Kanpainak departamentuak zituen helburuak bete ditu".

Horrenbestez, Arzallusek gogorarazi du, Donostia aitzindaria izan zela duela 16 urte Etxebizitzaren Eskatzaileen Erregistroa ezarrita. Eta urte hauetan guztietan 30.000 pertsonen izena eman dutela. Beraz, kanpainak helburu nagusietako bat bete du: eskatzaileen datuak eguneratzea, baremazioa egin ahal izateko datu gehigarriak lortzea, eta etxebizitzaren eskatzaileen karakterizazioari buruzko datu zehatzagoak biltzea.

Donostiako Etxegintzak kanpaina hasi zuen abenduaren 10ean, eta urtarrilaren 10a arte eskatzaileen erregistroan zeuden donostiarrek eta izena eman nahi zutenek ere, modu telematikoan eskaera egin dute. Jasotako ia 9.400 eskaeretatik, 3.300 pertsona Donostiako Etxegintzako bulegora joan dira, eta bertan, izena emateko tramitea egiteko laguntza jaso dute.

Datuak

Donostiako Etxegintzak 2076 alokairuko etxebizitza eta gazte zein adineko pertsonentzako bizitokiak ditu. Eta horien artean, kontuan hartzen dira Txomineneako 162 etxebizitza berriak eta Intxaurrendoko adineko pertsonentzako 55 etxebizitzak. Gogoan izan, azken bi hauek hurrengo hilabeteetan esleituko direla baremazio sistemaren bidez sortutako zerrendak kontuan hartuta. Eta zerrenda horietan behar berezi ezberdinetako 8 talde eta talde orokor bat bereizten dira.

Jaso diren eskaeren artean, azpimarratzekoa da %54,82 emakumeak direla eta %45,18 gizonezkoak. %45 talde orokorrekoak dira, %22,85 emantzipazioaren taldekoak, %9,56 guraso bakarren taldekoak, eta %8,69 pentsiodunen taldekoak. Gainerako talde bakoitzak – Familia Anitza, Desgaitasun intelektuala, Genero indarkeria eta Mugikortasun urriko pertsonak - %4 baino gutxiagoko eskaerak jaso ditu.

Izena eman duten pertsona gehienek, pertsona batentzako edo bi pertsonentzako etxebizitza eskatu dute. %51,7k pertsona batentzako etxebizitza eskatu du, eta %27,2k bi pertsonentzako etxebizitza. Urrunago gelditzen dira 3, 4, 5 edo pertsona gehiagorentzako etxebizitza eskatu duten pertsonak, %21.

Adinari begiratuta, eskatzaileen %46,12 18 eta 35 adin tartean daude. Jarraian 36 eta 50 urte bitarteko pertsonak daude (%34,11). Eta eskatzaileen %19,77k 51 urte baino gehiago dituzte. Adin tarte guztietako eskatzaile gehienek pertsona batentzako etxebizitza eskatu dute, bereziki gazteenek eta helduenek.

Prensa oharra

Nota de prensa



Aukera ezberdinen artean, Donostiako Etxegintzak etxebizitza partekatzeko aukera eskaini du. Eta aukera hau, batez ere, gazteei zuzendutakoa izan da. Jasotako datuen arabera, izena eman duten 18 eta 35 urte bitarteko pertsonen %8,94 prest dago etxebizitza partekatzeko.

Etxebizitzen esleipena

Hirigintza zinegotzi Nekane Arzallusek azaldu du, egun hauetan azken datuak prozesatzen ari direla. Eta datu horiek Ogasunarekin gurutzatu ondoren prozesuaren emaitzen behin-behineko zerrendak publikatuko direla.

Esleituko diren hurrengo etxebizitzak Txomineneako 162 etxebizitzak izango dira. Eta etxebizitza horiek amaituta daude, azkeneko ikuskapenen zain hainbat zerbitzu martxan jartzeko. Era berean, Arzallusek esan du, urtero Donostiako Etxegintzaren etxebizitza ezberdinetan aldaketak egoten direla, eta hutsik gelditzen direnak ere sistema honen bidez esleituko direla.

Prentsa oharra

Nota de prensa

La campaña de baremación para la adjudicación de VPO municipal de alquiler finaliza con 9.398 personas inscritas

La concejala de Urbanismo Nekane Arzallus ha dado a conocer los datos de una campaña que ha servido, además, para contar con datos más fiables y completos sobre la caracterización de las personas demandantes de vivienda protegida en Donostia

9.398 donostiarras han mostrado su voluntad de participar en el proceso de adjudicación de viviendas y alojamientos dotacionales municipales de alquiler por el sistema de baremación. La concejala de Urbanismo, Nekane Arzallus, ha presentado esta mañana los datos de una campaña que “ha cumplido con los principales objetivos que nos habíamos marcado desde el departamento”.

Así, Arzallus ha recordado que “Donostia fue pionera en la implantación de su Registro de Solicitantes de Vivienda hace ya 16 años, en los que ha habido más de 30.000 personas inscritas. De modo que, la campaña ha cumplido con uno de los principales objetivos, que era actualizar los datos de las personas solicitantes, recabar datos adicionales para la baremación, y contar con datos más fiables y completos sobre la caracterización de las personas demandantes de vivienda protegida en Donostia”.

Donostiako Etxegintza inició la campaña el pasado 10 de diciembre, y hasta el 10 de enero las y los donostiarras, tanto quienes ya constaban en el registro de solicitantes, como aquellas personas que quisieran inscribirse, han tramitado telemáticamente su solicitud. De las casi 9.400 solicitudes, 3.300 personas han acudido presencialmente a las oficinas de Etxegintza, en las que han recibido asistencia para completar el trámite.

Datos

Donostiako Etxegintza cuenta con un total de 2076 elementos alquilables, entre viviendas y alojamientos para jóvenes y personas mayores, incluyendo las 162 viviendas de Txomin Enea y los 55 alojamientos para mayores en Intxaurreondo, que se entregarán en los próximos meses, y cuya adjudicación se realizará por listas baremadas. Dichas listas incluyen 8 cupos específicos para situaciones de necesidad especial, y un cupo general.

De las solicitudes recibidas, cabe destacar que un 54,82% son mujeres, frente al 45,18% de hombres. El 45% pertenecen al cupo General, seguido por un 22,85% del cupo de Emancipación, un 9,56% del cupo Monoparental y un 8,69% del cupo pensionista. El resto de cupos - Familia numerosa, Discapacidad intelectual, Violencia de género y Movilidad reducida – han recibido menos de un 4% de solicitudes respectivamente.

La mayoría de las personas inscritas ha solicitado vivienda para 1 ó 2 personas. Un 51,7% de las personas solicitantes son para viviendas de 1 persona, mientras que el 27,2% son para viviendas de dos personas. Más lejos quedan las personas solicitantes para viviendas de 3, 4, 5 o más personas, que suman el 21% del total.

En lo que al rango de edad se refiere, el 46,12% de las y los solicitantes tienen entre 18 y 35 años, seguido del segmento entre 36 y 50 años (34,11%). El 19,77% de las

Prentsa oharra

Nota de prensa

personas solicitantes son mayores de 51 años. Y en todos los rangos de edad prevalecen las solicitudes para viviendas de una persona, si bien estas peticiones se acentúan en las franjas más jóvenes y más mayores.

Entre las opciones existentes, Donostiako Etxegintza estableció la posibilidad de compartir piso, una opción dirigida a las personas más jóvenes. Según los datos recabados durante el proceso, un 8,94% de las personas inscritas entre 18 y 35 años ha mostrado su disposición a compartir piso.

Adjudicación de viviendas

La concejala de Urbanismo, Nekane Arzallus, ha explicado que “estos días se están procesando los últimos datos, que se cruzarán con Hacienda, para después publicar las listas provisionales con el resultado del proceso”.

La siguiente entrega corresponderá a las 162 viviendas de Txomin Enea, que están finalizadas a falta de las últimas revisiones técnicas para la puesta en marcha de los servicios, ha subrayado Arzallus, que ha señalado que “cada año se produce cierta rotación en las diferentes viviendas y alojamientos existentes. Aquellos que queden vacantes se adjudicarán también a través de este sistema”.